



567. zkia.
XIV. urtea
2006ko apirilaren 8a

Alberto Garate, ikasle ohi aipagarriena IMH sarietan

**«Norberaren ideiak
aurrera eramateko ilusioa
ezinbestekoa da»**

Chevrolet Aveo berria, miretsi ezazu kanpotik eta goza ezazu barrutik



Chevrolet Aveo berria

SARRERARIK GABE

60€ /hilabetean - LEHENENGO URTEAN **120€ /hilabetean** - 100 KUJOTETAN

PRIVATUARIAN GASOLINA BARRNE **5,80% TAE**
AVEO 1.4 LS 16V

Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 - EIBAR - Tel.: 943 70 08 41
Karabi Industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da.



CHEVROLET

Finantziak: 1.91.2018 (1) (2) (3) (4) (5) (6) (7) (8) (9) (10) (11) (12) (13) (14) (15) (16) (17) (18) (19) (20) (21) (22) (23) (24) (25) (26) (27) (28) (29) (30) (31) (32) (33) (34) (35) (36) (37) (38) (39) (40) (41) (42) (43) (44) (45) (46) (47) (48) (49) (50) (51) (52) (53) (54) (55) (56) (57) (58) (59) (60) (61) (62) (63) (64) (65) (66) (67) (68) (69) (70) (71) (72) (73) (74) (75) (76) (77) (78) (79) (80) (81) (82) (83) (84) (85) (86) (87) (88) (89) (90) (91) (92) (93) (94) (95) (96) (97) (98) (99) (100) (101) (102) (103) (104) (105) (106) (107) (108) (109) (110) (111) (112) (113) (114) (115) (116) (117) (118) (119) (120) (121) (122) (123) (124) (125) (126) (127) (128) (129) (130) (131) (132) (133) (134) (135) (136) (137) (138) (139) (140) (141) (142) (143) (144) (145) (146) (147) (148) (149) (150) (151) (152) (153) (154) (155) (156) (157) (158) (159) (160) (161) (162) (163) (164) (165) (166) (167) (168) (169) (170) (171) (172) (173) (174) (175) (176) (177) (178) (179) (180) (181) (182) (183) (184) (185) (186) (187) (188) (189) (190) (191) (192) (193) (194) (195) (196) (197) (198) (199) (200) (201) (202) (203) (204) (205) (206) (207) (208) (209) (210) (211) (212) (213) (214) (215) (216) (217) (218) (219) (220) (221) (222) (223) (224) (225) (226) (227) (228) (229) (230) (231) (232) (233) (234) (235) (236) (237) (238) (239) (240) (241) (242) (243) (244) (245) (246) (247) (248) (249) (250) (251) (252) (253) (254) (255) (256) (257) (258) (259) (260) (261) (262) (263) (264) (265) (266) (267) (268) (269) (270) (271) (272) (273) (274) (275) (276) (277) (278) (279) (280) (281) (282) (283) (284) (285) (286) (287) (288) (289) (290) (291) (292) (293) (294) (295) (296) (297) (298) (299) (300) (301) (302) (303) (304) (305) (306) (307) (308) (309) (310) (311) (312) (313) (314) (315) (316) (317) (318) (319) (320) (321) (322) (323) (324) (325) (326) (327) (328) (329) (330) (331) (332) (333) (334) (335) (336) (337) (338) (339) (340) (341) (342) (343) (344) (345) (346) (347) (348) (349) (350) (351) (352) (353) (354) (355) (356) (357) (358) (359) (360) (361) (362) (363) (364) (365) (366) (367) (368) (369) (370) (371) (372) (373) (374) (375) (376) (377) (378) (379) (380) (381) (382) (383) (384) (385) (386) (387) (388) (389) (390) (391) (392) (393) (394) (395) (396) (397) (398) (399) (400) (401) (402) (403) (404) (405) (406) (407) (408) (409) (410) (411) (412) (413) (414) (415) (416) (417) (418) (419) (420) (421) (422) (423) (424) (425) (426) (427) (428) (429) (430) (431) (432) (433) (434) (435) (436) (437) (438) (439) (440) (441) (442) (443) (444) (445) (446) (447) (448) (449) (450) (451) (452) (453) (454) (455) (456) (457) (458) (459) (460) (461) (462) (463) (464) (465) (466) (467) (468) (469) (470) (471) (472) (473) (474) (475) (476) (477) (478) (479) (480) (481) (482) (483) (484) (485) (486) (487) (488) (489) (490) (491) (492) (493) (494) (495) (496) (497) (498) (499) (500) (501) (502) (503) (504) (505) (506) (507) (508) (509) (510) (511) (512) (513) (514) (515) (516) (517) (518) (519) (520) (521) (522) (523) (524) (525) (526) (527) (528) (529) (530) (531) (532) (533) (534) (535) (536) (537) (538) (539) (540) (541) (542) (543) (544) (545) (546) (547) (548) (549) (550) (551) (552) (553) (554) (555) (556) (557) (558) (559) (560) (561) (562) (563) (564) (565) (566) (567) (568) (569) (570) (571) (572) (573) (574) (575) (576) (577) (578) (579) (580) (581) (582) (583) (584) (585) (586) (587) (588) (589) (590) (591) (592) (593) (594) (595) (596) (597) (598) (599) (600) (601) (602) (603) (604) (605) (606) (607) (608) (609) (610) (611) (612) (613) (614) (615) (616) (617) (618) (619) (620) (621) (622) (623) (624) (625) (626) (627) (628) (629) (630) (631) (632) (633) (634) (635) (636) (637) (638) (639) (640) (641) (642) (643) (644) (645) (646) (647) (648) (649) (650) (651) (652) (653) (654) (655) (656) (657) (658) (659) (660) (661) (662) (663) (664) (665) (666) (667) (668) (669) (670) (671) (672) (673) (674) (675) (676) (677) (678) (679) (680) (681) (682) (683) (684) (685) (686) (687) (688) (689) (690) (691) (692) (693) (694) (695) (696) (697) (698) (699) (700) (701) (702) (703) (704) (705) (706) (707) (708) (709) (710) (711) (712) (713) (714) (715) (716) (717) (718) (719) (720) (721) (722) (723) (724) (725) (726) (727) (728) (729) (730) (731) (732) (733) (734) (735) (736) (737) (738) (739) (740) (741) (742) (743) (744) (745) (746) (747) (748) (749) (750) (751) (752) (753) (754) (755) (756) (757) (758) (759) (760) (761) (762) (763) (764) (765) (766) (767) (768) (769) (770) (771) (772) (773) (774) (775) (776) (777) (778) (779) (780) (781) (782) (783) (784) (785) (786) (787) (788) (789) (790) (791) (792) (793) (794) (795) (796) (797) (798) (799) (800) (801) (802) (803) (804) (805) (806) (807) (808) (809) (810) (811) (812) (813) (814) (815) (816) (817) (818) (819) (820) (821) (822) (823) (824) (825) (826) (827) (828) (829) (830) (831) (832) (833) (834) (835) (836) (837) (838) (839) (840) (841) (842) (843) (844) (845) (846) (847) (848) (849) (850) (851) (852) (853) (854) (855) (856) (857) (858) (859) (860) (861) (862) (863) (864) (865) (866) (867) (868) (869) (870) (871) (872) (873) (874) (875) (876) (877) (878) (879) (880) (881) (882) (883) (884) (885) (886) (887) (888) (889) (890) (891) (892) (893) (894) (895) (896) (897) (898) (899) (900) (901) (902) (903) (904) (905) (906) (907) (908) (909) (910) (911) (912) (913) (914) (915) (916) (917) (918) (919) (920) (921) (922) (923) (924) (925) (926) (927) (928) (929) (930) (931) (932) (933) (934) (935) (936) (937) (938) (939) (940) (941) (942) (943) (944) (945) (946) (947) (948) (949) (950) (951) (952) (953) (954) (955) (956) (957) (958) (959) (960) (961) (962) (963) (964) (965) (966) (967) (968) (969) (970) (971) (972) (973) (974) (975) (976) (977) (978) (979) (980) (981) (982) (983) (984) (985) (986) (987) (988) (989) (990) (991) (992) (993) (994) (995) (996) (997) (998) (999) (1000)



ESKAINITZA BEREZIA!
Kanape + koltxoia

999 €

Neurria: 1'35 x 1'90 x 18



LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

ZOZOAK BELEARI...

Hasi al zara San Joan sua egiteko materiala biltzen, Txino? Bilboko haurrak, bai. Ostegun goizean ikusi nituen: paper, egur eta minbre; tinbreak jo eta jo.

Bazen zerbait bitxia estanpa hartan: eguneko egunkaria zeraman batek besapean: "Marlascak 250.000 euroko bermea jarri dio Otegiri espexetik irteteko", zioen azaleko titularrak. Beste egunkari zaharrekin batera zeraman, pilatuta, eguneko berripapera ere: auskalo nork eman zion sutara botatzeko. Hasierako tropelaren atzetik umerik indartsuenak zetozen, izerditan blai gizajoak, haritz-egurrezko mahai bati tiraka. Eztabaida mahaia ekarri zidaten gogora, eta zenbat pisatzen duten hitz hutsak: beteek baino puskaz gehiago. *Altxa ezazue mahai hori gora arrastaka eraman beharrea!*, esatekotan egon nintzen, baina ez nintzen ausartu, nekatuta zetozen eta. Nire aurretik pasatzean, baina, krak egin zuen mahaiak eta hanka bat gutxiagorekin geratu zen. Oraindik baditu hiru. Han zehar zebilen ertzain batek jaso zuen mahaiari hautsitako egurrezko hanka. Makila. Egurra.

Egurrezkoak ote dira Arnaldoren ziega-barroteak?

250.000 euro paper asko da. Eta egur asko. Asko-asko. A ze San Joan sua aurtengo! Baina, shhhh, ixo, su-etenean gaudeta.

**«250.000 euro
paper asko da.
Eta egur
asko»**

UXUE

**«Sua piztu behar
dugu, orduan,
su-etena
ospatzeko?!»**

IMANOL

Sua piztu behar dugu, orduan, su-etena ospatzeko!? Ez da ideia txarra. Garai batean, San Joan suak udari ongi-etorria egiteko pizten ziren. Guk su-etenak sortu duen poza eta esperantza ospatzeko piztuko dugu. Azken mende erdian pilatu zaigun egurra erretzeko. Espiritu txarrak uxatzeko. Eta, gainera, bertakoez nahi badute, *Txillarre* baseriko atarian piztuko dugu aurtengo San Joan sua. Atarian ospatuko dugu sukaldean lortu dena.

Ixo ez, Uxue. Berba egiteko ordua da. Beldurrik gabe hitz egiteko ordua. Suaren bueltan eseri eta gau osoa hartuko dugu norberarenak esan eta aldamenekoarenak entzuteko. Eta barruak husten ditugunean, Karakate inguruko sorginei deituko diegu akelarrea prestatzeko. Biluzik harrapatuko gaitu egunsentiak, iribarre batekin. Gustura. Libre eta bakean bizitzeko lehen pauso eman dugula sinistuta. Aurrera egiteko ilusioarekin. Gau magikoa izan daiteke.

Bidean geratu direnek ezingo dute gu-rekin disfrutatu. Lastima. Baina, dauden tokian daudela, iritsiko zaie suaren berotasuna. Zerbait berezia gertatu dela sentituko dute. Badakit sua itzaltzen ahaleginduko direla batzuk. Suaren indarra gutxitzen den bakoitzean gainera salto egiten saiatuko direla. Inksidoreak ere Atxolin gainean egongo dira zer egiten dugun begira. Baina, kosta ahala kosta, sua bizirik mantendu behar dugu.

**“POLITIKARIAK HURRENGO HAUTESKUNDEA DU GOGOAN,
ESTADISTAK HURRENGO BELAUNALDIA**

Otto Von Bismarck

Udaletik kanpo antolatutako ekintzei boikotik ez!

Udalak Elgoibarko kaleetan jartzen diren kartel eta pankartekin duen jarrera salatu nahi dugu. Herritarrak dauden jardueraz, iritziez, berriez eta ekintzez informatzeko jartzen diren kartel eta pankartak era sistematikoan, egunero eta epea pasa aurretik kentzen dituzte, herritarron dirua erabiliz kontratatutako enpresa baten bitartez.

Hau ez zaigu normala iruditzen, askakeria iruditzen zaigu. Adierazpen askatasuna murrizten duen ekintza izateaz gain, herritarroi kalte nabarmena egiten digulako. Kultur jarduerak (antzerkiak, bertsoak...) eta jarduera sozialak (mendi irteerak, manifestazioak...) betidanik kaleetan kartelen bitartez azaldu izan direnak, karraketan duten presentzia gutxitzen dute eta ondorioz eduki dezaketen partaidetza, elgoibartarren desinformazioa sustatuz eta norabide bakarreko informazioa bilatuz. Hontaz aparte, honek duen kostu ekonomikoa eta ekologikoa ere aipagarriak dira. Zenbat papel alferrik galduta? zenbat tinta, plastiko, denbora, lan..?

Teknologia berriak oso erabilgarriak dira informazioa helarazteko, baina kaleko informazioak bere horretan jarraitu behar duela uste dugu, guztion eskura

dagoelako. Arazo honi irtenbide bat emate aldera, kalean jendeak bistan eta eskuragarri izan ditzakeen tokietan, panelak jartzea bezalakoak otu zaizkigu. Nahiz eta laister paneletan kartelak jartzeko epea eskatu beharko dugun!

Bukatzeko, Udalari gai honen inguruan neurriak hartzeko eskatzen diogu, bestela herri hontako kolektibo desberdinei tokatuko baitzaigu neurri ezberdinak hartzea. Hitzeginez ulertuko garelakoan, aio.

E.G.A.

XIII. J. Gurrutxaga Krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den Igandean, apirilak 2an, ospatutako XIII. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: Elgoibarko Udala, Egotoki Elkarte, Mintxeta Atletismo Elkarte, El Diario Vasco, Alzolako Urak, Lagun Taldea txirindulari Elkarte, Mekanosa, Bolintxo, Lete, Etxekit, Txiriboga, Julio Bueno edariak, Muebles Antón, Lanbroa taberna, Castrillejo estankoa, Fadak ileapaindegia, Salegi gozotegia, Iturri taberna, Jai Alai taberna, Gorostiza liburudenda, Muruamendiaraz gozotegia, Antxustegi Zeramikak, Goki erreformak, Gabi, Julepe, Or-

bea, Uzuri Optika, Osoro Zapatadenda, Garate Jantzidenda, Xigortze, Eroski Bidaiak, Ecuador bidaiak, Iriondo Kirolak, Aterpe taberna, Eroski, Zurich Aseguruak, Urnobotza Aseguruak, Iriondo taberna, Urkiola, Ostarku Argazkiak, King-Kong kafetegia, Mugape S.A., Sara Jantzidenda, Harzubi jatetxea, JJogers, Opel-Hyundai, Netto, Telepizza, Urrategi Elektroiak eta batez ere Udal Kirol Patronatua eta babeslea izan den Kutzari. Bestalde eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urtean, apirilak 22an ospatuko den XIV. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

J. GURRUTXAGA KROSA BATZORDEA

E-POSTA


barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez haztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Landinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maialen Olazabal, Iban Uizor, Kokoa K.E., Ururzuno, Unai Villena, Aitaiz Vives **ESKERRAZAHARRA** Gotzon Garateren liburirik **INPRIMATZEA** Geru **TRADA** 4.470 ale **LEGE GORDAILLA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

• **Herri Eskola kanpoan lurra apurtuta dago:** "Herri Eskola inguruko lurra oso egoera txarrean dago, baldosa guztiak apurtuta daude eta zulo handiak daude. Ikastetxe bat dago bertan eta ume mordoak ibiltzen da hemen. Aurreko baten nire umea erori zen eta mina hartu zuen. Oso arriskutsu dago, eta edozein egunetan ezbehar handiagoren bat gertatu daiteke. Udalak kontuan izan behar luke hau guztia. Ingurune hau konpontzea inbertsio egokia izan daitekeela uste dugu".



• **Melitongo autobus geltokian ez dago markesinarik:** "Autobus geltokietako markesinak ez daude oso egoera onean, gehienak puskatuta daude, baina Melitongo autobus geltokian ez dago markesinarik eta euria egiten duenean erabat bustitzen gara. Denbora dezente pasatu da dagoeneko, Melitongo zubian autobus geltokia jarri zutenetik, eta markesina bat bere jarlekuarekin jarzea beharrezkoa dela iruditzen zait. Madalako autobus geltokian gauza bera gertatzen da. Bi aldetan dago autobus geltokia, baina ez dago markesinarik. Honelako detaileekin Udalak kontu gehiago eduki beharko luke. Gaur egun jende askok autoa dauka, baina beste askok ez, eta asko dira oraindik autobusa erabiltzen dutenak".

TXALOAK

• **Udal Euskaltegia txalotu nahi dute Sara eta Zugarramurdira egindako irteeragatik:** "Joan zen larunbatean Sara eta Zugarramurdira egin genuen txangoa Udal Euskaltegiko ikasle batzuk. Eguraldiak lagundu zigun eta primeran ibili ginen. Antolatzaileek txalo bat merezi dute. Jarraitu horrela!".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 943 74 41 12

komikia

Hil da gero... Oskar Mulero



Kokoe OSA

Gau-eskolatik euskaltegieta 50 urtean

1982ko azaroa: AEK euskaltegia

Aurreko astean esan genizuen Elgoibarko AEK euskaltegiak 1982ko azaroaren 11n ikusi zuela argia estreinakoz. Hasieran, Correoseko etxean (gaur egungo Kultur Etxean) jarraitu zuten eskolak ematen. Baina, lokala Udalarena zen, eta alde egin behar izan zuten Udalak hala aginduta. Pare bat urtez jardun zuten eskolak han eta hemen ematen. Besteak beste, Plaza Txikian, Pedro Muguruzako eskoletan eta Madalako etxe batean (gero Gaztetxea izan zena). Materiala ere batetik bestera ibiltzen zuten, eta askotan klaseak etxean prestatu behar izaten zituzten.

Azkenean, 1987-88 ikasturtean, Plaza Txikiko lokala lortu zuten. Lokal honetan Udal Artxiboa zegoen, baina abandonaturik zegoenez, AEK-k lokala eskatu zion Udalari, eta orduko HBko bi zinegotziri esker lortu zuten lokal hau. Harrez gero Plaza Txikiko lokaletan eman ditu eskolak AEK-k.

AEKn eskolak ematen jardun duten irakasleei erreparatzen badiegu, hasierakoak Arantza Berasaluze, Begoña Andonegi, Jose Luisa Huergo, Juan Mari Mendizabal, Itziar Agirregomezkorta, Izaskun Belategi eta Amaia Larrañaga izan ziren. Gerora, M^a Angeles Exposito, M^a Karmen Urzelai, Itsaso Matos eta Alfontso Eugi ere aritu izan dira AEKn eskolak ematen. Azken urteetan, berriz, Izaskun Belategik, Amaia Larrañagak eta Alfontso Eugik egun osoz jardun dute eta dihardute, baina ordukako irakasleak ere izan dira.

Bestalde, 82tik hona euskara emateko metodologiak aldaketa ugari ezagutu ditu AEKn. Halere, aldaketak aldaketa, beti mantendu dira bi konstante: bat, euskara erabiltzeko eta hitz egiteko tresna dela, eta bi, hizkuntza erreal eta erabilgarria irakatsi behar dela.

Datorren astean segituko dugu AEK-ko kontu gehiagorekin.



**CARLOS
AYESTA**

UDAL EUSKALTEGIKO
IKASLE OHIA

Berba egiteko duen erraztasun eta abiaduragatik zaila da Carlos Ayesta euskaldun berria dela sinestea, baina 17-18 urterekin, institutu garaian, hasi zen euskara ikasten Udal Euskaltegian.

• Egia al da euskara ikastea zaila dela?

Zaila da, baina norberak gogoaz jartzen badu azkenean ikasten da. Neskalgunarekin hasi nintzenean haren gurasoak beraientzako hizkuntza araroa zena berba egitera behartzen nituela konturatzen nintzen. Hau ez da posible! esan nion nire buruari. Saiatzearen poderioz, orain da eguna, nire bizitzako alor ia guztietan euskara erabiltzen dudana; lanean, familian, aitarekin (euskaldun zaharra da), lagunekin, e.a. Nire esfortzuari esker edonorekin edozein elkarrizketa eramateko kapaz naizela ikusteak poztu eta harro sentiarazten nau.

• Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

87an hasi nintzen Azpeitian lanean eta hango asuntza oso diferentea da. Gure tailerreko asan-

bleak, telefono deiak, bileratxoak... dena euskaraz egiten da. Eta euskaraz ez dakiten apurrek ikastea daukate edo saiatzeari behintzat, beraien arazoa denik ez dut esango, baina bai ardura. Elgoibarren eta beste zenbait lekutan ezberdina da; %1ak ez dakielako erderara pasatzen gara. Ez zaio utzikeriari nagusitzen laga behar.

• Nola animatuko zenuke jendea euskaraz ikastera?

Hasieran une gogorrak pasa arren ez da zailtasunen aurrean amore eman behar. Tutik ulertzen ez duzun garaian erdaraz egin diezazuten eskatzeko demaseko tentazioa izaten da, baina burugogorra izan eta errazkeriak baztertu behar dira; zezenari adarretatik heldu. Atzera begiratu eta egin nuena egin nuelako dakit dakidana pentsatzen dut orain. Ahaleginak merezi du.

ITZALA *Edergintza*

 Amaia
Zubiaurre

- Laser depilazioa
- Depilazioa
- Masajea
- Tratamenduak
- Aurpegi garbiketak

San Frantzisko, 49 - 1 esk. • Tel. 943 74 43 03

 **karkizano**

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

 *Arrieta*

San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

[AKORDATZEN NAIZ]



ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

«Familixia eta kotxia»

Semia eta alabia izan genittun. Alabia sei hillabetekin hil zan. Eta semia ere oso gazterik hil zan istripuan. Magisteritza karrera amaittu zaban ekaiñian, eta udazken horretan bertan maixu bezela fijo sartu zan Gasteizko ikastola baten. Nobixia Segurakua zakan, eta haura ere maistra zaguan Gasteizen.

Ezkontzeko zauden istripua euki zebeñian. Mendixa gustatzen jakuen asko, eta edurretara jütia pentsau zebeñ. Askotan juten ziran, baiña egun haura txarra tokau zan. Baionatik Tarbes alderako karreteran, eguraldi txarra, haizia haundixa eta arbola baten kontra jo zebeñ. Bixak hil ziran. Emaztia eta bixok geratu giñan hamentxe. Oin jubilauta gaude. Ahal dan bittartian bixok segi egingo dogu aurrera.



Nik kotxeko kameta berandu etara naban. 72-xa izango zan; 40 urte nakazen.

Beste batzuk ere ikusten nittun, eta kotxe txiki batek autonomia haundixa emango zigula pentsatzen naban. Seisientosa ekarri gendun, eta gero emaztiak ere etara zaban kameta. Bixok ibiltzen giñan. Oin Opel Corsa txiki bat dakagu eta ondiokan ere konduzitzen dot. Begiko arazuak euki ditut, retinatikan operauta nago eta bilturtuta ibilli naiz, baiña dezente mejorau jata eta ondiokan kotxia hartzeko moduan nago. Rebisiua pasau naban eta ondo nabil.

Egunez bakarrik hartzen dot, ga-bez problemak eukitzen dittut.

[GURE BERBAK]

BARREN, inguruetako lokailu berezkoa

Kontrakotasuna, aurkaritza adierazten deben gailluen artian, nortasun berezixa dauka **BARREN**-ek; aldizkari honek berak, urrutira juan biharrik gabe, handik hartzen dau bere izena. Inguruko hizkeren berezko ezaugarri bat da, oso leku gitxittan eza-gutzen da-eta; gertuko ingurutik kanpo, ez da erabiltzen: Elgoibarren, Mendaron, Eibarren, Soruluzen, Ermuan, Mallabin eta Azkoitian bakarrikan. Erabillera markatu samarra dauka, ixa beti esklamazio moduan edo, (idatziz harridura-markia jarriko ninueke nik askori). Hona adibide batzuk:

- Gero hemen, gero oiñ esaten dabe eze "jolin, umiak ez daka barren iñun jolasian egitteko lekurikan". Oiñ pelotiakiñ plazan egitten debe. Guk pelotiakin bote bi egitten bagenduzen, jota "etxando puñetas" bialtzen ziguen hortikan.

Da gero, plazara juten danian, "jode" esaten dabe, "karua". Ez, jauna! Bai, pagau egin bihar da. Harek ezer ez dakixe barren zer dan!

- Zeiñ Patxi? Ze lanian, gero! Adarik ez dok jo bihar. - Patxi bai. Maria bai, hik esaten duana. Patxi! Patxi ni lanian naganian hil zuan, barren! Ta, zera, jubilau baiño lehenago.

Bideuan grabauta daukagu, baiña hemen ere noiznahi botatzen juek barren.

Jesus Mari Makazaga



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmología Clínica

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA
EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

ALBERTO GARATE IMHKO IKASLE OHI AIPAGARRIENAREN SARIA

«Gaur egun benetan zaila da produktu berri bat sortu eta merkaturatzea»

Alberto Garate elgoibartarak jaso du IMHko Ikasle ohi aipagarrienaren aurtego saria. Enpresa berri bat sortzeko izan duen ekimena saritu nahi izan du IMHk, izan ere, Goi Alde High Speed, makina erremintaren sektoreari lotutako enpresa berritzaileko gerentea da 32 urteko gaztea.



► Nola jaso duzu IMHko Ikasle Ohi Aipagarrienaren Saria?

Horrelako saririk merezi ez dudala uste dut. Ziur badagoela saria gehiago merezi duenik, eta gainera, gauza asko gertatzen zaizkit egiteko oraindik.

► Lan ibilbidean izan duzun ekintzaile izaera azpimarratu dute IMH sarietan. Oztopo asko gainditu behar al dira egungo lan merkaturatzearen norbere ideiak aurrera eramateko?

Izugarrizko ilusioa ezinbestekoa da. Beti adibide bera jartzea gustatzen zait: Fagor moduko enpresa indartsuak zergatik ez du auto marka bat ateratzen? Teknologia eta azpiegitura aldeetik arazorik ez luke izango, baina produktu berri bat merkaturatzea, konfiantza lortzea, gainditzeko horma zaila da. Edozer egin liteke egun, baina saldu egin behar da eta prezio onean gainera. Mila arazo gainditzeko ilusio handia behar da. Lan munduan izan

dudan esperientziak asko lagundu dit, denetarik egitea tokatu baitzait.

► IMHtik atera ostean zein izan da zure lan ibilbidea?

IMHn proiektu mekanikoen diseinuari dagokion goi mailako heziketa zikloa ikasi nuen 1994-95 urteetan, eta zenbait enpresetan lanean jardun ondoren, IMHra itzuli nintzen Txandakako Ingeniaritza ikastera. Praktikak Itziarren dagoen Ger enpresa elgoibartarrean burutu nituen. Ikasketak bukatu eta bertan jarraitu nuen, harik eta zuzendaritza teknikora iritsi arte. Goi Alde High Speed proiektua sortzeko aukera izan nuen 2000. urtean eta sorrera prozesu guztian aritzeko zortea izan dut. Lehen diseinuak, prototipoak, probak... egin ostean, 2001ean eman genion alta merkaturatze-erregistroan.

► Zenbat lagun zaudete enpresan?

Goi Alde Taldean 40-50 pertsona daude, baina Goi Alde High Speed-en lau pertsona bakarrik gara.

► Zein da Goi Alde High Speed-en egiten duzuen produktua?

Elektromandrinoak egiten ditugu, edozein fresadora eta tornu mekanizatutarako abiadura bizkorreko buruak. Piezen gainazalak eta akabaerak doitasun gehiagoz eta leundura hobez egiten ditugureak. Honez gain abantaila gehiago ere baditu; prozesu bakarrean egiten baitugu lehen bitan egiten zena, eta bestalde, abiadura bizkorreko mekanizazioekin ordu batean egiten dira lehen ordu eta erdi edo bi orduetan egiten ziren piezak.

► Zein izan dira produktua merkaturatzean aurkitu dituzuen oztopo nagusiak?

Gaur egun benetan zaila da produktu berri bat sortu eta merkaturatzea. Proiektu

bat merkaturatu aurretik mila proba egin behar dira; fidabilitate bat eskaini. Gure produktua beste makina oso garestien bihotza da nolabait. Batez beste 20.000 euroko kostua du eta milioi bat euroko makinen bihotza da. Hortaz, gure buruak akatsdunak badira, makina produzitu gabe geratzen da. Hau dela-eta, are zailagoa da produktua merkaturatzea. Produktu berria da, egiteko konplexua (jende askori arazoak eman dizkiona).

► **Zein dira zuen bezeroak?**

Produktuaren fidakortasuna eta homologazioa lortu ostean, gure "nitxo" edo lekua lortu dugu Espainian. Orain, berriz, gure produktua nazioartean zabaltzeko atakan gaude, hau da, beste puntu estrategiko bati heldu nahi diogu. Makina erremintaren sektorea azken urteetan nahiko gaizki ibili ostean, handitzen hasteko unea da; inbertsioak, kooperazioak egiten hasteko garaia, alegia. Momentuz bezero garrantzitsuak ditugu: Correa anaiak, Goratu, Danobat... gure produktua probatu dute eta gustura daude, ez bakarrik produktua-rekin: berenganako gure komunikazioa, asistentzia, gertutasunagatik diseinuan parte hartzeko duten aukera, e.a. Hizkuntza bera berba egitea ere abantaila da guretzat, denbora asko aurrezten da-eta.

«Gure produktua nazioartean zabaltzeko atakan gaude»

► **Konpetentzia handia al da?**

Konpetitzaile oso gogorak daukagu: suitzarrak, alemaniarak eta italiarrak, hau da, teknologia eta bitarteko handiko enpresak. Konpetentzia ez da erraza, are gehiago globalizazioaren aroan, bertan, gure etxean ere delegazioak baitituzte enpresok. Produktu eta zerbitzu onak eta prezio konpetitibotan eskaintzen dituzte. Horri aurre egin behar diogu.

IMH SARIEN 4. EDIZIOA



Makina Erremintaren Institutuak, IMH Sarien laugarren edizioko sari banaketa ekitaldia egin zuen joan zen astean. Bertan, ikasle ohi aipagarriena eta 2005-2006 ikasturteko ikasle eta fabrikazio arloko ikaslerik finenak saritu zituzten.

Ikasle garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren IMHko Heziketa Zikloetako ikasleei errekonozimendua eta esker ona emateko helburuarekin sortu zuten sariok IMHk, makina erremintaren sektoreari lotutako 34 enpresaren babesarekin batera. Ikastetxeko zuzendaritza eta irakasle talde batek osatutako epaimahaiak Enrike Aramburu bergararra aukeratu zuen 2005-2006 ikasturteko ikaslerik onena. Fabrikazio Arloko Ikaslerik One-

naren Saria, berriz, Miren Ballona eibartarrarentzat izan zen. Ipar Irlandan praktikak egiten dagoenez, bideokonferentzia bitartez agurtu zituen sari banaketara gerturatutakoak eta teknologiari esker, berari zegokion saria mutil-lagunak nola jasotzen zuen zuzenean jarraitzeko aukera izan zuen. Sarituek 1.500 eurotako ikasketa poltsa eskuratu zuten. Azkenik, Ikasle Ohi Aipagarrienaren Saria Alberto Garate elgoibartarraren eskuetara joan zen. Orriotan berarekin izandako solasaldiaren emaitza irakur dezakezue. Ekitaldian duela gutxi hil berri den Jose Mari Onandia, Ona Electro-erosion enpresako gerentea ere omendu zuten, sari hautan izan zuen parte hartzeagatik, besteak beste.

► **Zein dira globalizazioak ekarriko dituen erronkak?**

Globalizazioak min handia egingo dio makina erremintaren sektoreari, eta aukera edo bide ezberdinak aintzat ez badira hartzen, nahiko gaizki pasako dugu datozen urteetan. Duela gutxi, esaterako, Txinan egon berri naiz. Gure produktua saltzeko oso merkatu inportantea izan daiteke

eta piezak eta konponenteak bertan edo antzerako herrialde merkeagoetan egiteko aukerak ere aztertu behar dira.

!+Da ikertzea eta bultzatzea ere berebizikoa da, norberaren produktua teknologikoki hobetzea, plus edo balio erantsi bat eskaintzea, alegia. Jendea ilusionatuta eta konprometituta mantentzea ere garrantzitsua da.

[PROTAGONISTA]



IgorHorrillo

Igor Horrillo botikari mendarorak Gipuzkoako Botikarien Eskolak antolatzen duen Feuse Saria irabazi du. "Depresio nagusia" izeneko lana aurkeztu zuen lehiaketara, eta epaimahaikideen ustez, bere lana izan da onena. Lan honetan depresioaren oinarri neurobiologikoak aztertu ditu. Azken datuen arabera, emakumeek aukera bikoitza dute depresioan erortzeko, eta diotenez, depresioa duten gaixo gehienek ez dute tratamendu egokia jasotzen. Hau guztia landu du proiektuan eta 3.000 euroko saria lortu du. Igor Horrillo Botikan lizentziatua da, eta gaur egun, doktoretza egiten ari da Gasteizen.

[NOTIZIA]

Babes Ofizialeko 16 etxebizitza eraikiko dira Pedro Muguruza Etorbidean

Madalako guneko erresidentzial berria Babes Ofizialeko 16 etxebizitza eraikitzeko proiektua onartu du Foru Aldundiak. Honekin batera, merkatu libreko 145 etxebizitza eraikitzen ari dira Madalan, eta hotel bat ere egingo dute. Etxebizitzaren azpian garajeak egingo dira, eta honetaz gain, 76 ibilgailuentzako lekua izango duen lurrazpiko aparkalekua egitea aurreikusten da. Herriko lehenengo lurrazpiko aparkalekua izango litzateke. Osasun Zentrotik Pedro Muguruza egingo duten bide berria kokatuko da.

Pedro Muguruza oinezkoentzat

Obrak bukatzen dituztenean, Pedro Muguruza Etorbidea oinezkoentzako gunea izango da Madalatik Toletxeko dorre-



raino. Autoentzako bidea ingurune honetan eraiki dituzten etxe berrien artean joango da.

Bestalde, lorategi, parke eta guneko berdeak jartzea aurreikusten da, hau da, piasiarako guneko egoki bat sortuko da bertan.

[ZENBAKIA]

265.891

Eusko Jaurlaritzak eta Iberdrolak 265.891 euro erabiliko dituzte Debabarrena eskualdeko herriko elektrizitate zerbitzua

hobetzeko. Debabarrenako instalazio elektrikoak berritu egingo dira eta zenbait herri-tako argi potentzia handitu egingo da.

[ARGAZKIA]



Non aparkatu behar dugu autoa? Azken egunotan hauxe izan da herritarrek euren buruari behin eta berriz egin dioten galdera. Ez da lan erraza aparkaleku bat aurkitzea gure herrian, eta aurrerantzean zailagoa izango da: Santa Ana kaleko aparkalekua kendu dute etxebizitzak egiteko. Babes Ofizialeko 99 etxebizitza eraikiko dituzte. Etxe horien jabeak desiatzen dute obrak bukatzeko, baina auto gidariak kezkatuta dabilta. Norbaitek autoak poltsikoan gordetzeko teknikaren bat asmatuko balu, aberastu egingo litzateke gure herrian!

Elgoibarko Izarrak Bazkideen Batzarra egin zuen astelehenean



Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek Bazkideen Batzar Orokorra egin zuen astelehenean, hilaren 3an. Bertan, Elkartek martxan dituen proiektuen berri eman zituzten batzarrera agertu ziren bazkideei. Proiektu bakoitzeko arduradunak, 2005ean egindakoaren balorazioa eta aurtengorako dituzten helburuak azaldu zituen. Aldaketarik nabarmenena, akaso, Aisialdi Taldeak izan dezake 2006an; izan ere, Udalak Gazte Lekuaren eta Ludotekaren proiektuak aterako ditu lehiaketa publikora, eta irabaziz gero, etapa berri baten atarian egongo da aisialdi proiektua.

466.000 euroko aurrekontua

Gestio Taldeko arduradunak Elkarteko diru kontuen berri eman zien bazkideei, eta aurtengo erronka moduan, autofinantzazioa aipatu zuen. Bestalde, Toletxe proiektuak eragindako krisi ekonomikoa gaindituta, Elkarteko langileen soldatak eguneratzeko ahalegina egingo da. 2006ko aurrekontua 466.000 eurokoa da (77 milioi pezeta pasa). Amaitzeko, hurrengo hiru urtetarako bazkide kuota eguneratu zituen Batzar Orokorrak: kuota normala 36 eurokoa izango da, eta ikasle, langabetu eta jubilatuen, 18 eurokoa.

Elgoibarko KZguneak 4 urte beteko ditu hilaren 16an



Apirilaren 16an lau urte beteko ditu Elgoibarko KZguneak. Hasieran erabiltzaile gutxirekin jarri zen martxan, baina eboluzioa goranzkoa izan da. 2002an 41 erabiltzaile zeuden oinarriko mailan eta 2006ko otsailean 804. Erabiltzaileen artean, %54,51 emakumezkoak izan dira eta %45,49 gizonezkoak. Eskaintako ikastaro kopurua ere urteko urtera igotzen joan da, eta egun eskaintza zabala dauka. Hilabete honetarako, oinarriko ikastaroez gain, hainbat mintegi ere antolatuta dituzte. Informazio gehiago 943 74 88 28 telefonon.

[MOTZ-MOTZIAN]

Arantxa San Martin "Bai ala Ez" lehiaketako irabazlea

Hilabete honetan Arantxa San Martin izan da BARREneko "Bai ala Ez" lehiaketako irabazlea. Debako Kresala Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuitoa izan da saria. Zorionak! Datorren hilean Elgoibarko Gabi jatearekin bi lagunentzako afaria zozketatuko dugu. Lehiaketan parte hartzeko, astero BARREn egiten dugun galderari bai ala ez erantzun behar zaio, 7505 zenbakira SMS bat bidaliz.



Gutxitu fisikoentzako oporraldi programa

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak gutxitasun fisiko edo sensorial bat duten pertsonentzako oporraldien programa antolatu du. Interesatuek apirilaren 15erako eman beharko dute izena. Informazio gehiago Elgoibarko udaletxeko Gizarte Ongizate Sailean lortu daiteke.

Artekari lanposturako deialdia

Udaleko lanpostu zerrendan hutsik dauden 2. mailako Artekari lanpostua betetzeko lehiaketa-oposaketa librerako deialdia egin du Udalak Parte hartu ahal izateko, besteak beste, honako baldintzak bete beharko dira: Zuzenbideko, Enpresa eta Ekonomia Zientziatiko edo Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako Zientziatiko lizentziatua izatea. Informazio gehiago Udalean edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Eskabideak apirilaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Aste Santuan eguraldi txarra egingo duela esan dute metereologok.

Egin al duzu Aste Santurako planik?

SONIA REVERT
Etxekoandrea
33 urte



“Bai, Port Aventura joango gara umeeekin. Hiru egun pasatuko ditugu bertan. Hotza ala beroa egiten duen ez zait inporta, baina ez dezala euririk egin, behintzat!”

ROSARIO ITURRIA
Etxekoandrea
51 urte



“Ez, hemen geratuko naiz, ez daukagu kanpora joateko ohiturarik. Igual ez dute asmatuko eta aterako da egun txukunen bat egun pasa ibiltzeko bada ere.”

ANJEL IZAGIRRE
Jubilatua
64 urte



“Zarautzera joango gara. Eguraldi txarra egiten badu, txamarra eta botak jantzita mendi aldera joango naiz. Eguraldiak ez nau kezkatzen, aterkia badaukat-eta!”

GABRIELA GOMEZ
Ikaslea
40 urte



“Bai, Asturias aldera joateko asmoa daukagu Cares Ibilbidea egitera. Eguraldi txarra egiten badu ere ondo pasatuko dugu, baina nahiago dut ona egitea, noski!”

[BAI ala EZ?]

Ba al dauka irtenbiderik herriko aparkaleku arazoak?

BAI %59

“Plaza Txikian lurpeko aparkaleku handi bat egin eta goiko parkea parke edo jolastoki bihurtu. Baina Udalarari ez zaio interesatzen, horrek ez du etxeek beste diru ematen.”

EZ %41

“Ez, gero eta auto gehiago dago eta aparkaleku gutxiago. Dirua duenak garaje pribatua erosiko du eta ez duenak bueltaka segitu behar, aparkaleku ziztrin baten bila.”

Datorren asterako... Euskadiko HIES kutsaketa gehienak sexu harremanen bidez gertatzen dira.
Hartzen al duzu HIESaren kontrako neurririk sexu harremanetan?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

JAIOTAKOAK



**Joseba Zabala
Ansola**
[Otsailak 26]
Jose Ramon eta
Isabel



**Markel Uranga
Fernandez**
[Martxoak 4]
Eduardo eta M.
Milagros



**Maia Capdevilla
Gonzalez**
[Martxoak 21]
Emilio eta Alazne



**Gorka Alzaga
Santolaya**
[Martxoak 30]
Jose Jesus eta
Cristina

**Ander Vicario
Barrenetxea**
[Martxoak 5]
A. Maria eta
Idoia

**Xabier Telleria
Arrizabalaga**
[Martxoak 9]
German eta
Idurre

**Anton Andonegi
Gonzalez**
[Martxoak 10]
Imanol eta
Cristina

**Danel Elustondo
Mancisidor**
[Martxoak 20]
Xabier eta Idoia

**Maia Capdevilla
Gonzalez**
[Martxoak 21]
Emilio eta Alazne

**Ibai Arambarri
Arriola**
[Martxoak 29]
Iñigo eta Juncal

**Gorka Alzaga
Santolaya**
[Martxoak 30]
Jose Jesus eta
Cristina

HILDAKOAK

Agustin Fernandez • [74 urte] • Martxoak 1
Julian Irusta • [67 urte] • Martxoak 2
Jose Beneitez • [82 urte] • Martxoak 5
Mari Carmen Arriola • [85 urte] • Martxoak 16
Luis Osoro • [72 urte] • Martxoak 23
Tomasa Etxeberria • [86 urte] • Martxoak 26
Juan Jose Isasti • [69 urte] • Martxoak 26

EZKONTZAK

* Hilabete honetan ez da ezkontzarik egon Elgoibarren.

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

LH 4ko tutorea

ARANTZA "GARA" GARAGARZA



- 1 **Izan al duzu arrastoa laga dizun irakaslerik?**
Ondarruko Institutuko Pedro, Historia maitatzen irakatsi zidan.
- 2 **Irakasgai gustokoena? Eta gorrotagarriena?**
Artearen Historia eta gorrotagarriena matematikak. Benetan ulertu nituenean, gustatzen hasi zitzaizkidan, bizitza ulertzeko tresna baitira.
- 3 **Ikasle moduan zer nota jarriko zenioke zure buruari?**
Uff! Ze zaila! Gustuko gauzetan bikain bat eta gainontzekoetan nahiko batean lagako dugu. Ikasle bihurria izan nintzen.
- 4 **Zein da irakasle gisa gehien darabilzun zigorra?**
Errekreo gabe lagako ditudan mehatxua, nahiz eta 5 minutuko solasaldiaren ostean denak jolasean dauden.
- 5 **Zein da gela oso bat ixilarazteko metodoa?**
Sekretua jakingo banu! Deiadar egiteak arrakasta gutxi du. Ixil-ixilik geratuta, bitxia bada ere, mututu egiten dira askotan.
- 6 **Emango al zenioke klaserik burka jantzita datorren ikasle bati?**
Bai, norberaren aukera da. Ez nioke klaserik inori ukatuko.
- 7 **Inoiz maitemindu al zinen irakasle batetaz?**
Bai, argazkilaritzako irakasleak denak txora-txora eginda gintuen. Adin batzutan oso normalea da.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



ANE MIREN BENITO *ama*



IMANOL ALBIZU *semea*

GALDERAK

- | | | |
|---|---|--|
| 1. Aste Santuko oporretan nora? | 1. Eguraldi ona dagoen edozein tokitara. | 1. Malagara, nere lehengusinarengana. |
| 2. Zein lekutan egingo zenuke tatuaje bat? | 2. Tribal erakoa egiteko zorian izan nintzen. | 2. Aitaxok arranoa du besoan; nik lehoia |
| 3. Edari edo janari gustukoenak? | 3. Jateko edozer, alkatxofak izan ezik. | 3. Spaggettiak tomatearekin eta tonika. |
| 4. Telebistako gustuko saio bat? | 4. Barregurazkoak: "7 vidas" "Aida"... | 4. "Oliver eta Benji". |
| 5. Zapatu baterako plan perfektua? | 5. Goizean umeekin eta gauetz senarragaz. | 5. Goizean mendira eta gero zinera. |
| 6. Zenbat urte izatea gustatuko litzaizuke? | 6. Dauzkadanekin gustura nago. | 6. 20 urte, motorrean ibiltzeko. |
| 7. Oheratu aurreko azken gauza? | 7. Sudoku mordoak, deskonektatzeko. | 7. Asterix eta Obelix irakurri. |
| 8. Zer egiten duzu haserretzen zarenean? | 8. Garraisi asko egin. | 8. Amamaren etxera joan eta telebista ikusi. |

TXIKI inkesta

Zer dago ostadarraren bestaldean?

Irene Leal
7 urte

Eguzkia, euria eta lainoak daude.



Pablo Santa Marta
8 urte

Nik uste dut eguzkia, edo euria, edo zera daudela beste aldean.



Eneko Saiz
8 urte

Ostadarraren atzean edo bestaldean zera izkutatzen da.



Nerea Astigarraga
7 urte

Aldea dago nondik begiratzen duzun. Bestaldetik begiratuta gu gaude, ezta?



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

'GIPUZKOA ZURE ESKU'

mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Ainhoa Mugerza**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

baren@elgoibarkoizarra.com

GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

Gazte TOPAGUNEA

APIRILAREN 14tik 17ra bitartean izango da Gazte Topagunea Etxarri Aranatzan. Bi urtean behin ospatzen da ekitaldi hau; aurtengoa 6. edizioa izango da. Duela 12 urte egin zen lehenengo Gazte Topagunea Etxarrin bertan, eta hainbat herri desberdinetatik pasa ondoren, hasierarako lekura itzuliko da berriz ere. "TIPI TAPA INDEPENDENTZIAN TOPA" lemapean, borrokarako egunak izango dira, umore onez, ekitaldi desberdinetan parte hartuz, Euskal Herriaren independentziaren alde batuko dituzte indarrak 20.000 gaztek. Informazio gehiago www.gaztetopagunea.com helbidean.

Zer da gazte Topagunea?

Ainara Ladron eta Amets Izagirrerekin hitz egin dugu Gazte Topaguneari buruz, eta beraien azaldu digute zer den Gazte Topagunea: "Ondo pasatzeko gunea da, baina bere atzean konpromiso eta sinismen sendoa dauka. Lau egunetako egitasmo soil bat baino askoz gehiago da; Euskal Herriaren askapen prozesuan egin denaren erakustaldi erraldoia da. Azken finean, izaera propioa daukan ekimena da Gazte Topagunea".

Gazte Topagunearen helburua ere argia da: "Gure Euskal Herria independente eta iraultzailea izateko borrokatzea, jaia eta borrokaren alaitasuna lau egunetako ezaugarri bihurtuko dira. Etxarri eremu askea bihurtuko dugu, espazio liberatua, askea eta askatzailea izango da".

Euskal Herriko gazteek gazteentzat antolatzen duten ekitaldia da, baina bi neska hauek esan digutenez, ekitaldi poli-

tikoa baino gehiago da: "Gaur egun Espainia eta Frantziako Estatuak eta Eusko Jaurlaritzak inposatu diguten herri ereduarekin bat egiten ez dugun gazteak elkartzeko gunea da".



Gazte Olinpiadak

Aurten estreinakoz ospatu dira Gazte Olinpiadak: "Topagunea parte-hartzailea izatea zen aurtengo helburua, eta norberak bere sentitzea Gaz-

te Topagunea. Sentimendu hori lortzeko antolatu dira olinpiadak". Emaiza bikaina izan dela kontatu digute: "Euskal Herri mailan antolatu dira. Lehenengo kanporaketa bailaraka izan zen. Debabarrenean Eibarren egin ziren eta Plaentxik irabazi zuten. Gipuzkoa mailako kanporaketa Ordizian egin zen eta azpeitiarrak izan ziren onenak. Gazte Topagunean jokatuko da finala".



BARREN

'06



Nola joan Topagunera

Aste Santurako planik egin ez duenak, oraindik badauka Etxarrira joateko aukera. Autoz joan daiteke, eta nahi duenak, autobusa ere izango du: "Elgoibartik ez bada, Eibartik ateratzen den autobusarekin egingo dugu bat. Eskualdetik autobusa seguru antolatuko dugu". Interesatuek ohiko lekuetan eman dezakete izena. Bestalde, lanerako prest dagoen jendea ere beharrezkoa dela esan digute: "Topagunea partehartzailea da eta autogestioa behar-beharrezkoa da. Lan handia egin behar da eta lanerako jendea beharko dugu".

Gazte Topaguneari Euskal Herriko jende ugari biltzen du. Aurten 20.000 lagun espero dira. Elgoibartik ere hurbilduko dira gazteak Etxarri Aranatzera: "Oraindik ez dakigu zenbat elgoibartar joango garen, baina 40 bat lagun izango gara". Elgoibartarren presentzia, beraz, ziurtatuta dago.

8.000 lagunentzako akanpalekua

Lagun koadrilak kanping denda hartuta joaten dira normalean Gazte Topagunera. Aurtengoan 8.000 lagunentzako akanpalekua egongo da eta bertan zerbitzu minimoak jarriko dira, besteak beste, komunak, duxak eta iturriak. Akeita gunean egun osoan zehar kafea hartu eta bokatak jateko aukera egongo da, jantoki herriko bat jarriko da eguneko menuak eskaintzeko eta barazkijaleentzako menu bereziak ere eskainiko dira bertan. Honetaz gain, informazio gunea eta larrialdiren bat gertatzen bada, osasun gunea ere izango dira.

egitaraua

Gazte Topaguneari ekitaldi desberdinak egoten dira. Lau egunetan zehar ekitaldi politiko eta kultural desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Lau gune nagusi bereizten dira: Herri Eskola, Gaztetxea, Kultur Etxea eta Herri Gunea. Besteak beste, tailerrak, hitzaldiak, antzerkiak, bertso saioak, txiste maratoiak... izango dira.

Gauz musika izango da Topaguneko protagonista. Karpa erraldoian kontzertu desberdinak entzuteko aukera izango da.

* Musika

Karpa erraldoian izango dira kontzertuak. Besteak beste, ondorengo taldeen kontzertuak izango dira aurtengo Gazte Topaguneari: Mikel Urdangarin, Ken 7, Obrint Pas, Berri Txarrak, Koma, Etsaiak, Kuraia, Def Con Dos eta Anje Duhalde. Honetaz gain, bertso saioak ere izango dira.

* Hitzaldiak

Egunez ere egongo da zeregina. Nahi duenak hitzaldi eta mahainguru desberdinetan parte hartzeko aukera izango du. Besteak beste, "Borrokaz, aske biziz" hitzaldia egongo da, "Bihar EH" izango da beste bat, Nazioarteko mahaingurua, presoen mahaingura...



* Tailerrak

"Zure gaztetxea nola eraiki", "Malabare tailerra" "Hezkidetzeta tailerra", "sexualitate tailerra" eta "kriptografia tailerra" izango dira besteak beste.



* Besterik

Zanpantzarrak, antzerkiak, umeentzako jolasak, buruhandiak, bideoak, laburmetraiak... izango dira.

www.gazte-topagunea.org

ANGEL CUERDO BIDAIARI ETA ABENTURAZALEA

«Mongolian zehar zaldi gainean bidaiatuz jatorrietara itzuli nahi nuen»



Mongoliako estepa ikaragarrian bakarrik eta zaldi gainean. Mongoliar nomadak, Ghenghis Khan, munduak ezagutu duen gerlari handienaren ondorengoak, txundituta geratzen ziren Angel Cuervo tolosarraren zaldi gaineko irudia ikusten zutenean. Duela gutxi Elgoibarrera egin zuen bisita aprobeixatu dugu berarekin berba egiteko.

► Zergatik Mongolia?

Zaldi gainean bidaiatuz jatorrietara itzuli nahi nuen, ehundaka urtez gizakiaren garraio-bide bakarria izan baita. Eta zer leku hoberik Mongolia baino, non zaldiak nomaden bizimoduko ardatz diren oraindik.

► Ba al zenuen esperientziarik zaldi gainean?

Apenas. Jordaniako desertuan proba egitea erabaki nuen Arabiako Lawrencek lagatako arrastoa jarraituz. Jordaniako esperientzia Mongoliakoa baino gogorragoa suertatu zen. Everest igotzea modukoa bata eta Santiago Bidea egitea modukoa Mongoliakoa, luzea baina zailtasun teknikorik gabea. Jordaniako desertu antzuan zaldiarentzat janaria topatzea izan zen zailena. Mongoliako estepan egin nituen 800 km-tan belar nahikoa izan genuen. Gobiko desertuan ere egin nituen 300 km. gamelu gainean.

► Zein dira estepako arriskurik handienak?

Galtzea, orientatzea oso zaila baita. Espainia halako 3 den lurraldean bi milioi biztanle bizi dira eta 300 km. bakarrik daude asfaltatuta. Ibaiek eta elektra indarren posteez eramaten ninduten bizitza zegoen toki-

raino. Nomaden etxeak ziren estepa amaigabeen orientabide bakarria. GPS erreferentziak ere alperrikakoak dira, ganorazko maparik ez dago-eta. Zaldiak erdi basatiak izaki, ihes ez egiteko ere tentuz ibili behar da. Ezin dira inoiz libre laga, bestela galduta zaude. Zuhaitzik ere ez dago, ordea, eta mongoliar nomadek erakutsi moduan soka batekin lotzen nizkien lau zangoak.

«Esnekiek eta haragiak bakarrik osatzen dute nomaden elikadura»

► Nomadak izaten jarraitzen al dute?

Gero eta gehiago, lurrak ez baitu jaberik han. Errusiar komunistak joan zirene-

tik industria desagertu eta abeltzantzatik bizi dira. Kontrolpean izateko hirietan batu zituzten arren, nomaden izaerak ez du hiriarekin bat egiten eta Ger-etan (nomaden etxeak) bizi dira, ordubetean desmuntatu ditzakete. Esnekiek eta haragiak osatzen dute nomaden eguneroko elikadura, fruta edo barazkirik ez baita hazten estepa hai-zetsuan. Ganaduaren trukean arropa bakarrik erosten dute kanpotik.

► Nola hartzen dituzte arrotzak?

Zaldi gainean eta mongoliar jantzi tradizionalak jantzita bidaiatzeak euren errailetan sartzeko aukera eman zidan. Oso beldur, txakurrekin babesten dituzte etxaldeak, baina jaberik ez badago ez da gomendagarria zalditik jaistea. Jabeak bazeuden, berriz, ohorezko gonbidatu bilakatzen nintzen berehala. Bidaiariari ongi-etorria egitea dute lege nagusia, bihar edo etzi beraien izango direla bidaiariak dakite-eta, abegikortasuna oso bameratuta dute. 20 kilometrorra bueltan inor bizi ez den tokian bisitari bat gertakari handia da eta kanpoko berri izateko desiatzen daude. Nire omenez ahuntzak sakrifikatzen zituzten batzutan.

TRINITATE JAIK

2006ko Tanborradako kartela aukeratzeko lehiaketa martxan da



Udaleko Kultura Batzordeak ekainaren 10ean, Trinitate jaien barruan egingo den tanborradako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du estrainekoz. Lanak egiteko teknika librea izango da: argazkia, diapositiba, pintura, marrazkia, collagea, e.a. baina ezinbestekoa izango da honako testua agertzea (diapositiba bidez aurkeztutako lanetan izan ezik): "Elgoibarko Tanborrada 2006". Kultur Etxean aurkeztu beharko dira lanok, apirilaren 28ko, eguerdiko 13:00ak baino lehen. Irabazlearentzako saria 300 eurokoa izango da. Oinarrien inguruko jakingarri gehiago Kultura Sailean jaso dezakezue edo www.elgoibar.org helbidean. Bestalde, dagoeneko 210 lagunek eman dutela tanborradan parte hartzeko izena jakin dugu. Honela, parte hartzaileen kopurua itxiztat eman dute antolatzaileek. "Hemendik aurrera izena ematen dutenak itzarote-zerrendara pasako dira, norbaitek kale egingo balu haren ordeztatzeko" adierazi dute Kultura saileko arduradunek



Elgoibarko Institutua

Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net



ELGOIBARKO BH INSTITUTUA 2006/07 IKASTURTEA



- ✓ Batxilerreko 5 ibilbideren artean norberaren interesen arabera aukeratzeko posibilitatea. **(Zientifiko-teknikoa, Osasuna, Teknologikoa, Humanitateak eta Gizarte Zientziak)**
- ✓ Azken 10 urteetan selektibitatea gure ikasleen %97k baino gehiagok gainditu du.
- ✓ Bailara guztiko 550 ikasle ditugu : aukera ederra inguruko gazteak ezagutzeko eta harreman berriak egiteko.
- ✓ Unibertsiterako zein goi mailako hezkuntza ziklo formatiboetarako prestakuntza.

BATXILERREKO AUREMATRIKULA apirilaren 25etik maiatzaren 5era

GURASOENTZAT BILERA IREKIA apirilaren 25ean, arratsaldeko 19:30ean.

IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA apirilaren 26an, arratsaldeko 16:30ean.

EMAKUMEAK ETA MENDIA

Mont Blanc eskalatzeko gonbitea emakumeentzat



Emakumea, kirola eta euskara uz-tartzen dituen egitasmoa plazaratu du emakume talde batek. Emakumeak mendira gehiago hurbiltzeko asmoarekin, uztailearen 14tik 24ra bitartean Mont Blanc, Alpeetako tontorrik garaiena, eskalatzeko espedizioa antolatzea pentsatu dute. Mont Blanc-era (4.810 m.) lau bidetatik igo eta denak tontorrean elkartzea da asmoa. Hori dela-eta, gutxienez 20 laguneko taldea osatu nahi dute, bide bakoitzetik bost laguneko taldea joan ahal izateko. Pres-takuntza berezirik ez dela behar adie-

razi dute antolatzaileek; soka, pioleta eta kranpoiekin ibiltzera ohituta egotea nahikoa ei da. Horrez gain, 40 urteik gorako emakumeentzako pentsaturiko irteera da. Orain arte, Eibar, Elgoibar, Iruñea, Gernika edo Hondarribiako emakumeek eman dute izena. Elgoibartik momentuz hiru emakume animatu dira jakin ahal izan dugu. Interesa duen edozeinek 619 471 358 (Mertxe) telefonoa deitu dezake edota ideiarekin asmatzailea den Maria Arinekin kontaktuan jarri: ma-arin@ej-gves helbidean edo 620 959 962 telefonoan.

Udaberri Tomeoko finala jokatu dute Ulazia eta Iriondok gaur Bergaran

Ulazia eta Iriondo Lagunak Pilota Eskolako senior mailako bikotea Udaberri Tomeoko bigarren mailako finala jokatzeko sailkatu da. Finalurrekoetan Beasaingo Murumendiko bikotea kanporatu zuten 22 eta 3 irabazi ostean. Final handia gaur, hilak 7, jokatu da Bergarako Udal Pilotalekuan arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Pilotari mahoneroak izango dituzte aurrez aurre. Jubenil mailako bi bikoteek; Atxotegi eta Portuk lehen mailan eta Liza-

rraldek eta Arrizabalagak bigarren mailan ezin izan zuten finalurreko kanporaketa gainditu. Bestalde, Debarroko Txapelketa abian da jadanik, eta Lagunak Eskolako pilotariak emaitza onak lortzen ari dira. Nagusiek 22 eta 14 gainditu zituzten eibartarrak eta jubenilek 22 eta 12 hartu zituzten azpian arrasatearrak. Zapatu eta domeka honetan Eskoriatzan eta Bergaran jokatu dituzte partidak etxeko pilotariak.



Jabier Osoro 2. postuan sailkatu zen Lasturreko bolatokian

Beti ezin irabazi eta oraingoan bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten San Migeleko bolariak. Lasturreko bolatokian jokatu zen Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketako bigarren jardunaldian Bittor Ugarteburu, Asola Berri taldeko eibartarra izan zen nagusi 7 txirlorekin. Bigarren postua Jabier Osoro elgoibartarrak eskuratu zuten 4 txirlorekin eta hirugarren postuan sailkatu zen lehen jardunaldiko irabazlea; Xabier Loiola sanmigeldarra. 5. eta 6. postuetan ere Felix Gomez "Beltza" eta Angel Ibarluzea auzotarrak sailkatu ziren. Guztira 67 bolarik parte hartu zuten. Hurrengo jaurtialdia San Andreseko (Soraluze) bolatokian izango da bihar, hilak 8.



Ion Murua nagusi La Unionen Ehiza Xehe Txapelketa

La Union Ehiza eta Arrantza elkar-tek antolatuta Ehiza Xehe Txapelketan parte hartu zuten herriko hainbat ehizarik Zanbranan, Arabar Errioxan dagoen ehiza barrutian. Ion Murua izan zen irabazlea eta Carlos Conde

txapel-dunordea. Oscar Miguel sailkatu zen hirugarren postuan, David Conde, aurrekoaren anaiaaren aurretik. Jubenil mailako irabazlea, berri-z, Adur Juaristi izan zen eta beteranoe-tako txapel-duna Francisco Iriondo.

XIII. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSA

437 haurrek parte hartu zuten atletismoaren jaian




Milaka kilometrora, Japonian, Kenenisa Bekele etiopiarrek Munduko Kros Txapelketan 5. txapela jarraian irabazten zuen bitartean, Elgoibarko kaleak antxintxikariz bete ziren joan zen domeka goizean. Elgoibar Ikastolak antolatzen duen Jose Gurutzaga Haur Krosak erakarrita, 1991 eta 1999. urte bitartean jaiotako 437 haurrek parte hartu zuten 14 lasterketatan. Benetako irabazlea atletismoa izan bazen ere, ona hemen adin bakoitzeko irabazleen izenak, gaztetxoenetatik hasita: Nerea Bastida, Alejandro Beraza, Miriam Elustondo, Antxon de la Arada, Ainhoa Etxeberria, Jon Salegi, Lorea Santiago, Mikel Gurrutzaga, Garazi Osoro, Ibon Belaustegi, Nora Santiago, Roke Ortuste, Otsalar Urain, Josu Espilla, Maria Hernandez, Borja Diez, Miriam Goy eta Angel Lopez. Eguraldi eguzkitsuak kirol jardunaldi ederra osatu zuen.

Squash eta frontoi txikia aurpegia berriturik

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Olai-zaga kiroldegiko squash eta frontoi txikiaren margoketa lanekin bukatu du. Bestalde, hezetasun arazoak konpontzeko deshumidifikadore aparatu bat jarri du. Hain zuzen ere, gero eta erabiltzaile gehiago dituztela jakinarazi digute Udal Patronatutik. Patronatuko abonatuak squash eta frontoi txikiaren erabilera dohainik daukate.

Aste Santuko ordutegia

Bestalde, Kiroldegia irekita egongo da Aste Santuko egun guztietan. Instalazioak goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00ak bitartean egongo dira zabalik



Sabel Dantza ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Sabel Dantza ikastaroa antolatu du Olaizaga kiroldegian, apirilaren 28tik ekainaren 30era bitartean. Klaseak barixakuetan izango dira, 20:00etatik 22:00etara eta

Jaione (Sebastopol taldekoa) izango da irakaslea. Izena ematea nahi duenak Olaizaga kiroldegira jo beharko du. Ikastaroaren prezioa: 30 euro/hileko da (ez da derrigrezkoa bazkidea izatea).

[EMAITZAK]

FUTBOLA

San Pedro 3 - Haundi 0 (3. maila)
 Elgoibar 3 - Ilintxa 0 (1. erreg.)
 San Marcial 1 - Elgoibar 0 (Jub.)
 Elgoibar 1 - Amaiak Bat 2 (Kad.)
 Kostkas 1 - Elgoibar 0 (Inf. A)
 Elgoibar 1 - Hondarribia 3 (Kad.)
 Elgoibar 1 - Amaiak Bat 2 (Neskek)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle 17 - Baracaldo 24 (Senior mut.)
 Pneumax 28 - Aloña 26 (Jub. mut.)
 Umobitza 32 - Aloña 23 (Kad. mut.)
 Egia 29 - Tecnomeca 17 (Jub. mut.)
 Askartza 25 - Lojantzi 30 (Sen. neskek)
 ANTT Softan 23 - Arikutz 21 (Jub. neskek)
 Ereintza 17 - Pagoaga 17 (Kad. neskek)
 Aterpe 13 - Zarautz Aiala 12 (Inf. neskek)
 Zarautz Aiala 12 - Olalsa 11 (Inf. neskek)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa
 Lagunak 22 - Eibar 14 (Nagusiak)
 Lagunak 22 - Arrasate 12 (Jub.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 8
 16:30 Haundi - Zamudio (3. maila)
 Domekia, 9
 10:00 Elgoibar - Billabona (Aleb.)
 11:15 Elgoibar - Urola (Inf. B)
 12:30 Elgoibar - Zugatzarte (Jub.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 8
 17:30 Olalsa - Aozaraza (Inf. neskek)
 19:00 Tecnomeca - Groseko (Kad. mut.)
 Domekia, 9
 10:00 Umobitza - Arrate (Kad. mut.)
 11:30 Pagoaga - Arrate (Kad. neskek)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Pisia salgai Mendaron. Eguzkitsua, dena kanpora. 3 logela, sukalde, bi komun, bi garaje eta trastelekua. **635 20 79 01**
- ▶ Pisia salgai Bernardo Ezenarro kalean. 2 logela, garajea eta trasteroa. Berria. Prezio interesgarria. **606 71 56 77**
- ▶ Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berria. 168.200 euro (28 milioi pezeta). **943 748448/636571111**
- ▶ Etxea dalgai Bernardo Ezenarro kalean. 3 logela, trasteroa, komuna, sukalde eta egongela. **677 43 71 12**
- ▶ Errosario kalean etxebizitza salgai. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, despentsa eta ganbara. **943 74 42 05**

ALOKAIRUA

- ▶ Etxebizitza alokatzen dut Torreveijan. Hondartzatik 200 metrora. Aste Santu eta udarako. **615 70 71 38**

- ▶ Pisu berria alokatzen da Santa Klaran, "Residencial Mirador". Sukalde, egongela, bi komun, 3 logela, 40m²ko terraza. **655 72 3678 (20:00-21:00)**
- ▶ Apartamentua alokatzen da Torreveijan. Igerilekuarekin eta hondartzatik 800 metrora. Hiri erdigunean. **628 58 45 35**
- ▶ Logela bat alokatzen da. **635 20 64 36 (10:30-12:30 edo 19:00etatik aurrera)**
- ▶ Pisia osatzeko pertsona bat behar da. **610 45 85 52**
- ▶ Logela alokatzen da, komunarekin. **618 81 39 70**
- ▶ Pisia alokatzen da Conilen (Cadiz), Bateles hondartza ondoran. Jantzita eta aire egokituarekin. **680 44 26 68**
- ▶ Mutila behar dut pisua alokatzeko. Sukalde eta logelarekin. San Antolin 6, 3.ezk. **645 70 77 00**
- ▶ Gizonezkoa etxea konpartitzeko prest Elgoibarren. **697 78 52 78**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaje marraduna salgai Leku Ederren. **639 05 14 45**
- ▶ Garaje marraduna alokatzen da Pedro Muguruza 11n. **943 53 16 48**
- ▶ Garaje itxia salgai Leku Ederren. 24.000 euro. **678 80 35 35**
- ▶ Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. **943 74 43 98/943 74 00 70**
- ▶ Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean, 17-19 zenbakian. **943 74 24 50**
- ▶ Urasandi kalean, Altzari almazeneren azpian, garaje marraduna salgai. **943 74 24 56**

[AUTOAK]

- ▶ Motorra salgai. Piaggio x8 beltza. Extrak. 9.000km. Beti garajejan. **678 80 35 35**
- ▶ BMW 320D autoa salgai. 136 zaldi. SS-BD. Egoera oso onean. **639 65 40 27**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Gurpil-aulki elektrikoa salgai. Garant 40. 2002. Erabilterraz. 10km/ordu. Gurpil sendoak. Iraulgaitza. Prezioa adosteko. **635 73 58 15**
- ▶ Sukalde salgai: bitrozeramika, labea eta mepansa. Estrenatu gabe. Oso merke, 180 euro. **647 626 693**
- ▶ Telebista handi bat salgai. **943 74 09 80**
- ▶ Bizikletarako eruberak salgai. Mavik Cosmic Carbon. 2005. urtea. 850 euro. **943 03 37 24**
- ▶ Lur saila erosiko nuke bide edo errepide batetik gertu. Hektarea bat inguru. **661 181 622**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako klase partikularak ematen dira. **943 53 10 54**
- Kamareroa lanerako prest: umeak edo nagusiak zainduz, etxeko lanak eginez... **686 578 228**
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan, igeltseritzan, lore-zaintzan... **636 762 822/943 53 18 35**
- Gizona lanerako prest. **678 89 84 29**
- Kamarero moduan lan egiteko prest. Euskaraz dakit. **620 04 94 20**
- Emakumea lanerako prest, egunez edo gabez. Esperientzia dut. **943 17 28 96**
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan. Alikatatzen, tabikatzen eta makinaria erabiltzen dakit. **645 70 28 31**

- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan edo pintore moduan. **606 612 834**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako prest. **676 623 843/943 53 08 03 (Romina)**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **636362251/646235195**
- Mutila asteburuetan lan egiteko prest. **686 475 563**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **943 53 12 70**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **639 88 20 04**
- Emakumea lanerako prest, in-terna edo externa moduan. **943 53 15 53**
- Neska garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. **680 327 674**

ESKAINZA

- Eibarko enpresa baterako muntatzaile mekanikoa behar da. LH mekanika arloan eta ingelesa menperatzea eskatzen da. **CV. Eibarko 263 postakutxatilara bidali.**
- Tabernarako kamareroa behar da. **615 76 14 63**
- Umea zaindu eta pisua osatzeko emakumea behar da. **666 03 27 15**
- Mutil euskalduna behar da aroztégian lan egiteko. Gida baimena. Esperientziaduna. **943 03 35 66 (CV bidali faxez)**
- Asteburuetan Txuri-Beltz tabernarako kamareroa behar da. **943 74 0228/943 7407 45**
- Kamareroa, neska zein mutil, behar da tabernan lan egiteko. **943 74 16 00**
- Asteburuetarako kamareroa behar da. **695 72 37 36**
- Begiraleak behar dira 7 eta 14 urte bitarteko haurrentzat, uztailean ingeles udalekuetarako.

943 71 20 55

- Sukaldari eta kamareroa behar da. Esperientzia. **943 74 12 30**
- Kamareroa eta sukaldari laguntzailea behar dira asteburuetan lan egiteko. **943 03 01 50**
- Basko Rent enpresak kotxeak garbitzeko pertsona bat behar du. **902 10 32 87**
- Ametsa tabernarako kamareroa behar da. Ostiral, larunbat eta igandetarako. **943531035**

ABISUAK

- Txaleko bat aurkitu dut San Bartolome kalean. Jabeak deitu dezala. **943 74 29 38**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Roke** asteazkenean 3 urte egin zenituelako. Etxekoen, eta batez ere, anaia Jonen partez.



▶ Zorionak **Xabier Ariola** gaur bi urte egin dituzulako. Patxo handi bat Oierren partez.



▶ Zorionak **Cristina** apirilaren 12an 18 urte egingo dituzulako. Guraso eta Amaiaeren partez, ondo pasa egun horretan.



▶ Zorionak **June** gaur bi urte egin dituzulako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Beñat** hilaren 11n urte bat egingo duzulako. Etxekoen eta bereziki, Leireren partez.



▶ Zorionak **Irati** hilaren 10ean 8 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat familiakoen eta Maiteren partez. Ondo pasa!



▶ Zorionak **Kimetz** bihar 5 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, anaia Haritzen partez.



▶ Zorionak **potxoli!** Beti izango zara gure etxeko txikixa. Laguntxoan eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Nalaya** apirilaren 9an bi urte egingo dituzulako. Aita, amona eta familiakoen partez.



▶ Oso **Olaia** zure 2. urte-betetzean eta muxu handi bi Ikastolako laguntxoan partez.



▶ Azkenean agertzen da zure aurpegi polita, **Beñat** Zorionak Ikastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Eider** gaur urte-bete egin duzulako. Muxu handi bat etxeko sorginarentzat. Muxu bat baita Ikastolako lagunen partez.



▶ Zorionak **Lucia Bilbao** hilaren 9an 12 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.




▶ Zorionak **Aitor!** Azkenean iritsi da eguna. Ondo pasa! Lagunen eta bereziki, Loreren partez.



▶ Ondo **Julia!** Familiako guztien partez, gehiago bete ditzazula. Muxu handi bat.



▶ Oso **Nerea** apirilaren 13an 7 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez muxu handi bat.



▶ Heldu dira zuen egunak, neska! Mila kilo zorion familiako guztien partez.



[OKINDEGIA]

9 igandea IBARRENEA
 13 eguena BOLINTXO
 14 barixakua DOÑA MERCEDES
 15 zapatua EIZAGIRRE
 16 igandea FOTERO
 17 astelehena IBARRENEA



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ
 7 Yudego
 8 Zabaleta
 (* Goizez Bidasolo)
 9 Zabaleta
 10 Etxeberria (Errosario)
 11 Ibañez
 12 Bidasolo
 13 Bidasolo
 14 Bidasolo

GUARDIA 24 ORDUZ
 15 Zabaleta
 (* Goizez Bidasolo)
 16 Zabaleta
 (* Goizez Yudego)
 17 Zabaleta
 18 Etxeberria (Errosario)
 19 Ibañez
 20 Bidasolo
 21 Etxeberria (Santa Ana)

KANPOKO FARMAZIAK IBAÑEZ

Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ

Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA

Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

[ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK]

	Hilak 9 Erramo Igandea	Hilak 10 Astelehena	Hilak 11 Asteartea	Hilak 13 Ostegun Santua	Hilak 14 Ostiral Santua	Hilak 15 Pazko gaubela	Hilak 16 Pazko Igandea
	10:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza 12:00 Meza	16:30/20:00 Adiskidetze ospakizunak (Euskaraz)	16:30/20:00 Adiskidetze ospakizunak (Gaztelaniaz)	10:00/12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	18:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	21:00 Bazko gau- bela	10:30 Meza nagusia eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak
	9:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza			17:00 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurreko otoitza	9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz bidea 17:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	22:00 Bazko gaubela	9:30 Meza
	9:00/13:00 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza			19:30 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	10:00 Gurutz bidea 18:30 Jesusen heriotzaren ospakizuna		9:30 Meza
	10:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza	20:00 Adiskidetze ospakizunak (euskaraz)		18:30 Azken afariko ospakizuna	20:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna		11:00 Meza
	11:30 Hitzaren ospakizuna		21:00 Adiskidetze ospakizunak (euskaraz)				

[7 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian
2 urteik 6 urte bitarteko
haurrentzat. (euria bada, hurrengo
ostiralera atzeratuko litzateke)
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

22:15 "EL FLORIDO PENSIL" ANTZEZLANA

Taldea: Tanttaka Antzerki Taldea
Herriko Antzokian

[8 ZAPATUA]

10:00 MONDRAGON UNIBERTSITATEKO INFORMAZIO AUTOBUSA

Nafarroa Plazan (14:00etara arte)

11:30 "ATXUTXIKROSA"

Plaza Handian
Haur Hezkuntzako haurrentzat
Antolatzailea: Atxutxiamaika
Aisialdi Taldea

[9 DOMEKIA]

10:00 BARRETERAPIA JARDUNALDI BERRIA

Aubixa baserrian

10:15 ELGOIBARKO UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

12:30 ELGOIBARKO UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro
Egitaraia: "Paco Molero" (C.
Bernaola); "Costumi Romani" (C.
Galanti); "African Symphony" (N.
Iwai); "La Revoltosa" (R. Chapi) eta
"West Side Story" (L. Bernstein)

16:30 "XURDIN KOBAZULOAN GALDURIK" HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

Taldea: Sointek produkzioak
Herriko Antzokian
3tik 12 urtera bitarteko haurrentzat

[21 BARIXAKUA]

22:00 BIDEO FORUM-A

Filma: "Cleopatra"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume
Taldea

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Crash»

8, zapatua: 19:30-22:15
9, domekia: 19:30-22:15
10, astelehena: 21:30

«Secretos Compartidos»

13, eguena: 19:30-22:15
14, barixakua: 22:15

«Una historia de violencia»

15, zapatua: 19:30-22:15
16, domekia: 19:30-22:15
17, astelehena: 21:30

«Bambi II»

16, domekia: 16:30

«Kitchen stories» (Z.K.)

20, eguena: 21:30

«Memorias de una Geisha»

21, barixakua: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Fireworld»

7, barixakua: 19:30-22:15
8, zapatua: 17:00-19:30-22:15
9, domekia: 17:00-19:30-22:15
10, astelehena: 19:30-22:15
11, martitzena: 19:30-22:15
12, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen
emandaldien aldaketen erantzukizunik.

«Crash»



Zuzendaria: Paul Haggis.
Antzezleak: Sandra Bullock, Don Cheadle.
Filmarik Onenaren Oscar saria irabazi du pelikula koral honek aurtien. Los Angeles hirian bizi diren arraza ezberdineko hainbat pertsonairen bizitzak nola elkar gurutzatzen diren erakutsiko digu: ama drogazalea eta desagertuta dagoen anaia duen polizia beltza, bi auto lapur, barrutiko fiskala eta bere emazte haserrekorra, aita gaixoa zaintzen duen polizia arrazista, polizia gazte idealista, sarrailagile hispanoa eta bere alabatxoa, telebista zuzendari arrakastatsua, etorkin pertsiarra, e.a.

«Kitchen stories» (Zine Kluba)

Zuzendaria: Bent Hamer.
Antzezleak: Joachim Calmeyer, Tomas Norström.
1944an suediarrek egin zuten esperimendu bitxia azaltzen du umorezko drama honek. Ahalik eta sukalde eroso eta funtzionalena lortzeko ahaleginean ikerlari talde bat etxeko andrek eta gizonetako sukalde barruan duten portaera behatzen hasiko da 24 orduz jarraian. Zango oso luzedun ahulkiak erabiliko dituzte, tenis epaileek darabiltzaten tankerakoak. Baldintza bakarra; ezin da ikertuekin berba egin, esperimenduaren kutsu zientifikoa izorratuko lukete-eta.

Atzera hegira



1955 urteko erretratu zahar hau **Rafael Rodriguezek** laga digu. Bere aita eta koadrilako lagunak ageri dira argazkian. San Bartolome jaietako Txiki Eguneko argazkia da. Gaur egun bezala, ordu hartan ere bazegoen lagunarteko bazkaria egiteko ohitura, eta koadrila honek halaxe egiten zuen. "Los Málaga" izenez ezagutzen zen koadrila hau herrian, denak andaluziarrak ziren eta ezizen hori jarri zieten. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren mutil hauek: Ezkerretik eskumara: **Manuel Zafra, Miguel Rodriguez (), Gregorio Fernandez, Jose Bernal ()** eta **Antonio Martin ()**.



ESKERTZA


2006ko apirilaren 1ean, 87 urte zituela hil zen
Fdisa Galkotxearen sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I aki Larz Irlondo
2002ko apirilak 5

IV. URTEURRENA

*"Argi bat itzali da
hemen lurrean
berri bat piztu da
han zeru ederrean
beti jarraituko duzu
gure bibotzean".*





MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak, halako etorkizuna

Lara Arruti,
Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikaslea.

*"Komunikaziaren gizartea bizi garenaz,
ezinbestekoa komunikaziaren legeak ezagutzea"*





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Blena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso

Lelhoak
Sigmako industrialdea
Xixllion 2-2. pabilloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Lcuihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi

Olaso Poligonoa,
15-68 pabilloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Isolamenduak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Elbar)
☎ 943 200 698



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta Indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com